



Iruñea. Natur zientziak:

**Flora mehatxatua: oinarri teorikoa, metodoak, kudeaketa-tresnak eta Euskal Herriko egungo egoera**

Uztailak 16-20.



## Hitzaldia:

**Erabilera Publikoa flora mehatxatua kudeatzeko tresna gisa**

Uztailaren 20a

Enara Rabina. Biologoa

## **Helburuak:**

- Erabilera publikoko oinarrizko kontzeptuak argitu.
- Erabilera publikoko planifikazio eta flora mehatxatuaren arteko lotura landu.

## **Jorratuko ditugun atalak :**

- 1. Erabilera publikoa : oinarrizko kontzeptuak.**
  - 1. 1 Erabilera publikoa vs. turismoa**
  - 1.2. Bisitaria vs. turista**
- 2. Erabilera publikoaren planifikazioa.**
- 3. Erabilera publikorako programak eta flora mehatxatua.**
- 4. Erabilera publikoa eta flora : adibideak**

# 1. Oinarrizko kontzeptuak

- **Erabilera publikoa:**

- Babestutako natur eremuetako administrazioak ezarritako **programa, zerbitzu, aktibitate** eta  **ekipamendu** multzoa da.
- Bisitariei balio natural eta kulturaletara **gerturatzea** du helburu, **era ordenatu eta seguruan**.
- Balio naturalen **kontserbazioa, ulermena eta begirunea** bermatu behar du **informazioaren, heziketaren eta interpretazioaren bitartez**.

Erabilera Publikoa **EZ DA...**

- **Turismoa:**

- Pertsonak bere bidaietan edo beraien **jatorrizko eremutik kanpo** egiten dituzten egonaldietan burutzen duten aktibitate multzoa da.
- Egonaldia jarraia da eta **urtebete baino laburragoa**.
- Egonaldiaren arrazoiak **aisialdikoak, negoziotakoak edo bestelakoak** izan daitezke.

Zergatik da garrantzitsua Erabilera Publikoa eta Turismo kontzeptuen arteko bereizketa?

- Kudeaketa erresponsabilitatearen bereizketan laguntzen du:
  - **Erabilera publikoa → Ingurumen administrazioa.**
  - **Turismoa → Turismo administrazioa.**

# Bereiztu erabilera publikoko eta turismoko aktibitateak:

- Hegaztiak ikustatzea.
- Perretxikoak biltzea.
- Mendiko bizikletaz ibilbideak egitea.
- Eskalada.

- **Bisitaria:**
  - Bertakoa edo kanpotarra.
  - Babestutako natur eremura gerturatzen da bertako **balio natural edo kulturelez gozatzeko**.
  - Babestutako natur eremuan erabilera publikoko aktibitate, ekipamendu edo zerbitzuen erabilera egin behar du **onura ekonomikoa ateratzeko intentziorik gabe**.
- **Turista:** babestutako natur eremura datorren eta gutxienez gau bat bertako ostatu batean igarotzen duen pertsona da.



## 2. Erabilera publikoaren planifikazioa.

### Planak eta programak:

- Aurreikuspenak epe laburrekoak baino luzeagoak izan behar dute: zer, nola eta nork.
- Teknikoki argudiatuta egon behar dute.
- Oso gutxi dira, oraingoz, erabilera publikoko plangintzak dituzten eremu natural babestuak. Zergatik?
  - Orain arteko lan joerak ez dira planifikazioan oinarritu.
  - Plangintza tresnetan oinarritzen den kudeaketa egungo kultura administratiboaren eraldaketa suposatzen du.
  - Administrazioaren konpromisoa suposatzen du.
  - Plangintza motak eta metodologiak definitu gabe daude (plan orokorrak, plan zehatzagoak, marko logikoa, e.a... beraien arteko mugak definitu behar dira).

# Nola iristen gara erabilera publikoko planifikaziora? (Erabilera Publikorako Planak).

- Babestutako eremu baten plangintza: Kudeaketa Planak (NBAP<sup>1</sup>, EKPZ<sup>2</sup>, e.a.).
  - Erabilera publikorako irizpideak ezartzen dira.
  - Aktibitateak erregulatzen dituzte.
  - Zonifikazioa diseinatzen dute.



**Beraz, babestutako eremuetako kudeaketa planak etorkizuneko**

**ERABILERA PUBLIKORAKO EREDUAREN** oinarria dira.

1: Natur Baliabideen Antolamendurako Plana.

2: Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea.

## **Erabilera Publikorako Plan Orokorra**

- Herrialde osoko babestutako natur guneen ekintza ildo nagusiak: estrategia, helburuak, neurriak, e.a. → herrialde batek erabilera publikorako duen gorputz teorikoa, **izaera legala** duena.

## **Erabilera Publikorako Eredua**

- Plan orokorrean edo eremu bateko plan zehatzean etorri daiteke. Erabilera publikoaren eskema teorikoa eta bertan oso epe luzerako helburu orokorrak definitzen dira. Eredua ez da aldatzen naiz eta administrazioa aldatu eta **izaera legala** izan behar du.

## **Erabilera Publikorako Plana**

- Hasierako egoeraren diagnostia.
- Erabilera publikorako eredua (plana aurreneko aldiz egiten denean).
- Garatuko deiren programen identifikazioa.
- Programen garapenerako ildoan ezarpena.

## **Erabilera Publikorako Programa**

- Helburu Orokorrak.
- Helburu eragile edo operatiboak.
- Jarduerak.
- Giza baliabideak + baliabide material eta ekonomikoak.
- Kronograma.

### 3. Erabilera publikorako programak eta flora mehatxatua.

1. **Harrera programa:** bisitarien ugaritasuna eta banaketa.
  - Ekipamenduen kokalekua, ibilbideak nondik, seinaleak non, **inpaktuen zuzenketa**, harrera kapazitatea, e.a. → flora mehatxatuen populazioen kokalekua kontuan izan.



Toki Alai Interpretazio zentroa. Urkiolako Parke Naturala



## 2. Informazio, dibulgazio eta komunikazio programa.

- Identitate eta promozio azpiprograma.
- Seinaleen azpiprograma (diseinua).
- Argitalpenen azpiprograma.

**Informazioa:** bisitariaren beharrak asetzea helburu duen ekintza: orientazioa, seguridadea, non gozatu, denboraren plangintza, e.a.

**Komunikazioa:** Bisitariari esan nahi diogunaren edukia = MEZUA (zer esan nahi dugun).

**Dibulgazioa:** ezagutza zabaldu. Adb. Argitalpenak.



### 3. Ingurumen hezkuntza eta ondarearen interpretazio programa (nola esan nahi dugun).

**Ingurumen hezkuntza:** prozesu iraunkor eta planifikatua, ingurumenaren gaineko arazo sozialak konpontzea helburu duena. Ikasleei edo bisitariei zuzenduta.

**Ondarearen interpretazioa:** natur ondarearen esanahia eta garrantzia komunikatzeko gaitasun kreatiboa da. Interpretazioaren bidez bisitariari babestutako eremua gozatu, begirunea sortu eta kontserbazioan laguntzeko gogoia piztu behar zaio.



Ondare naturalaren interpretazio adibidea:

## Caleta Valdés-eko ibilbidea, Patagonia (Argentina)

**El Molle quitaba la sed a los tehuelches.**

**Molleak egarria kentzen zien tehuelchei**



Imagínese por un momento que está masticando un limón.

**Imajina ezazu une batez limoi bat jaten ari zarela**

La saliva aumenta en su boca.

**Ahoan txistu kopurua handitzen da**

El fruto verde del molle tiene gusto a limón y por eso los tehuelches lo masticaban en días calurosos, para aumentar la saliva y calmar la sed.

**Mollearen fruitu berdeak limoi zaporea dauka eta tehuelchek bero handiko egunetan mastekatzen zuten egarria arintzeko**



**Molle**



ESTANCIA  
**La Elvira**  
Hotel de Campo

# Los Chinos utilizaban la efedra hace 5000 años para tratar el asma.

Txinatarrek efedra erabiltzen zuten duela 5000 urte asma sendatzeko

Esta planta contiene efedrina, un estimulante frecuente en los antialérgicos y antigripales.

Landare honek efedrina du, antialergiko eta gripearen kontrako botiketan oikoa den estimulatzailea



Efedra



ESTANCIA  
**La Elvira**  
Hotel de Campo




# A falta de Internet bueno es el Quilembay.

## Internetik gabe, Quilembay!

La mayoría de las plantas de este lugar cuando se queman despiden un humo blanco que se pierde a la distancia. Por eso los indígenas se comunicaban quemando el quilembay haciendo señales con su inconfundible humo color negro.

Eremu honetako landare gehienek distantziarekin galtzen den ke zuria botatzen dute erretzerakoan. Hori horrela izanik, indigenek ke beltza botatzen duen quilembay erabiltzen zuten komunikatzeko.



Quilembay



ESTANCIA  
**La Elvira**  
Hotel de Campo

Zampa o yerba del diablo, una planta con poderes mágicos.


**Zampa edo deabruaren belarra magikoa den landarea da.**

Los indígenas creían que humeando a una persona con esta planta se podían eliminar los males del gualicho.

**Indigenek uste zuten, pertsona bat landare honen ketan edukiz, gualitxo ondoezaz sendatu zitekeela.**

El gualicho es un tipo de espíritu maligno de la mitología indígena.

**Gualitxoa indigenen mitologian espiritu gaiztoa da.**



**ESTANCIA  
La Elvira**  
Hotel de Campo

# El yaoyín es un buen cebo para “pescar” ñandues.

Yaoyina ñanduak “arrantzatzeko” beita oso ona da




Así lo consideraban los indígenas.

Los lugares con yaoyines en fruto eran ideales para cazar ñandues.

Horrela uste zuten indigenek.

Yoayinak fruituan dauden lekuak bereziki onak ziren ñanduak heizatzeko.



Yaoyín




ESTANCIA  
**La Elvira**  
Hotel de Campo

## 4. Trebakuntza programa

Bertako biztanle eta langileei balio naturalen manei u eta ustiaketan trebatzen zaie: hezkuntza eta interpretazio profesionalak, basozainak, inguruko sektore sozio-ekonomikoak, e.a.

**Mehatxatutako flora espezieen ezaugarri eta kokaleku zehatza ezagutu behar dute erabilera publikoan aritzen diren langileak.**

# 5. Ikerketa programa.



## 4. Erabilera publikoa eta flora: adibideak


### Mehatxatutako floraz osatutako lorategi botanikoen sarea Andaluzian.

- Helburuak:
  - **Kontserbazio-ikerketa programen garapena:** Floraren Berreskurapenerako Planak, floraren kontserbazioa eta maneia.
  - **Ingurumen heziketarako programen garapena:** kolektibo ezberdinei zuzendutako heziketa programak (ikasle, nekazari, abeltzain, landare biltzaile, e.a.). Honen bitartez Andaluziako flora ondarearen aberastasuna, eremu zehatz horretako flora-errekurtsoa eta eremuaren ezaugarri biogeografikoak ezagutarazi nahi dira.
  - **Erabilera publikorako programaren garapena:**
    - Bisitarien etorrera bideratu.
    - Bisitarien atentzio fluxua flora eta beraien habitatei zuzendu.
    - Floraren kontserbazioaren garrantziaz kontzientziatu.

# San Fernandoko lorategi botanikoa (Cadiz)



# LORATEGI MEDITERRANEARRA



Garatutako lurretan ezartzen den flora 3 faktoreen arabera:

- Lurzoru mota: azidoa, basikoa.
- Hezetasun maila.
- Gizakiaren eragina.

**A1C:** Cultivos sobre suelos arenosos y secos. **A1M:** Matorrales sobre terrenos arenosos y secos. **A1B:** Bosque sobre terrenos arenosos y secos. **A2C:** Cultivos de secano sobre terrenos arenosos moderadamente secos. **A2M:** Matorrales sobre terrenos arenosos moderadamente secos. **A2B:** Bosque sobre terrenos arenosos moderadamente secos. **A3C:** Cultivos sobre terrenos con cierta humedad constante. **A3M:** Matorrales sobre suelos frescos. **A3B:** Bosques sobre terrenos frescos **A4C:** Cultivos sobre terrenos arenosos húmedos. **A4M:** Riberas degradadas o ramblas sobre terrenos arenosos pobres en sales. **A4B:** Bosques de ribera sobre terrenos arenosos pobres en sales.

**B1C:** Cultivos sobre terrenos secos ricos en bases. **B1M:** Matorrales sobre terrenos secos ricos en bases. **B1B:** Bosque sobre terrenos secos ricos en bases. **B2C:** Cultivos sobre terrenos básicos moderadamente secos. **B2M:** Matorrales sobre terrenos básicos moderadamente secos. **B2B:** Bosque sobre terrenos básicos moderadamente secos. **B3C:** Cultivos sobre terrenos ricos en bases con cierta humedad. **B3M:** Matorrales sobre suelos básicos frescos. **B3B:** Bosques sobre terrenos básicos frescos **B4C:** Cultivos sobre terrenos húmedos ricos en bases. **B4M:** Riberas degradadas o ramblas sobre terrenos ricos en bases. **B4B:** Bosques de ribera sobre terrenos ricos en bases.



**Adibideak: Mugako Ibar-basoa (Azkoien-Peralta).**

## **INTERPRETAZIO-IBILBIDEA**





**Ur-bazterreko  
landarediaren berriztapena**



**P**

Hasierako egoera



Sahats aldaxken landatzea







Lezka hostozabalaren “geotextila”





## Mediante la tecnología el río recupera su naturalidad

El agua consigue que las plantas de la orilla se distribuyan ordenadamente. Si observa con detenimiento, verá como las diferentes especies se disponen en cinturones paralelos al agua.



Enclave Natural  
Soto de La Muga



Las especies más acuáticas como el carrizo y la espadaña ocupan las primeras filas. Les siguen los carex, lirios, sauces, tamarices y los chopos.

La pérdida de vegetación de ribera ha sido algo muy habitual en nuestras orillas. Hoy en día, existen técnicas avanzadas que permiten restaurar estos espacios reintroduciendo especies vegetales autóctonas.

La orilla que usted tiene delante se ha restaurado mediante técnicas llamadas de bioingeniería. ¿Podría identificar las diferentes bandas de vegetación?



# Adibideak: Aralarreko mendizerran putzua

## Abelzantzaren kudeaketak hezegune txiki baten berreskurapena ahalmentzen du



Uhandre alpetarra (*Triturus alpestris*) putzu hontan bizi den anfibioa da, eta uraren kalitatearen hobetzea bere onerako izango da. Uretara begiratzuz gero zapandurraren bat (zapabururen bat) edo igelen bat salto egiten ikusi dezakezu.



Udaberrian etortzen bazara, ura lore zuriz estaltzen duen ranunkuloa (*Ranunculus trichopyllus*) ikusi dezakezu, edo *Caltha palustris*, tarteka errekatxoan ertzak horiz jartzten dituen.



Zaila da aurrean daukazu bezalako putzu bat Aralarreko mendizerran aurkitzea. Zergatik? kareharrizko lekuetan, euriak ekartzen duen ur gehiena, berehala zoruaren zirrikituetatik behera lurrazpira joaten delako.

Aralarren abelzantza aitzinatik dator, bertako paisaiaren eraldaketan sekulako eragina izan duelarik. Nonnahi aurkitu daitezkeen monumentu megalitikoak (trikuharriak, tumuloak...) horrela adierazten dute.

Orain dela gutxi arte haziendak Unako putzua erabiltzen zuen. Orduan, zergatik dago orain itxita? Non edaten dute orain abereek? Joan egin al dira?

Gaur egun ere, abelzantza behar-beharrezkoa da paisai berezi hau mantentzeko, hortaz, animalien beharra asetzeko zenbait ganbela jarri dira inguruan. Zelaian bueltatxo bat ematen baduzu, ziur ikusiko dituzula!

Putzua ixtean lortu nahi den helburua zera da: hezegune berezi hau berreskuratzea, abereen erabilerak sortzen duen kutsadura eta zikintasuna (uhertasuna) ekidituz. Horrela, zenbait animali eta landare hobestea lortzen da, Nafarroan, beraien berezitasun eta urritasuna (eskasia) dela eta garrantzizkoak direnak hain zuzen ere. Bestetik, landaredia berreskuratu eginen da putzu ertzetan eta abereengan sortu zitezkeen osasun arazoak ekiditzea lortuko da.

Hezegune honen berreskurapena nola burutzen den ikustera animatzen zaitugu !!!

## Gozatu Aralarrez mendizerra errespetatuz





*Eleocharis austriaca*

Zaborrak paperc sartu.

Parke guztian, as bakarrik pizten a

EZ

Par gar

# BERTI

## Bertziko Jaurreiko Natur Parkea

Laguntzailea:  
Ingeniaria  
1993 Naturaren

Astiazabaldea:  
INGURUGARAREN KUDEKETA-  
NAPARRAKO MINTZU ETA  
BAGORRITZAK E.A.

Oihan hauetako ondasun batzuk eta tradizioz haiekin egin dena ikastera gonbidatua zaude.

Gozatzen duzun bitartean, eremu babestu hau honda ez dadin, kontuan hartu ohar hauek:


- Jateko, belardiak eta askaldegia erabili.
- Zaborrak paperrontzi eta edukiontzietan sartu.
- Parke guztian, askaldegiko errelekuan bakarrik pizten ahal da sua, ez beste inon.
- Ez gogaitu beste bisitariak eta animaliak. Ez hondatu landareak.
- Parkera ezin da lagun egiteko animaliarik sartu.

Ibiltzen hasi baino lehen, kontuan hartu honako hau:

- \* Ibilbideak 5 km inguru ditu.
- \* Hiru bat ordu behar dira ibilbidea egiteko.
- \* Oihanaren ezaugarriak direla eta, ibilbidea ez dago prestatua mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat.
- \* Irakurri, behatu eta sentitzeko, testuan eta planoan marken bidez dago adierazita non gelditu. Marka horiek berak aurkituko dituzu ibilbidean.



Ongi ibili!



Askotan adituko zenuanak ezinbestekoak direla planetak biziarri eustel

Behar-beharrezkoak dir egungo izurrite gaiztoenei aurre egiteko: klima al basamortuen hedakuntza, dibertsitate biologiko era, paisaiaren hondamena, etab.

Baina, asian, ongi ezas batzuk, oinarritzkoak (dituzu oihanetako ondasun industria, eraikuntza, abeltzaintza, nekazaritza, (seguru ondasun gehiarrantz eta turismorako daudela).

Oihan bakoitzeko on jendearen bizimoduak zerikus handia dute

Ibilbide honetan, trad diren erabilera batzuk, asko gordetzen dira in diren eta egiten segitzen iko dituzu. Izan ere, ondasun in.



5

**1** Ikatz egitea bizimodua izan da XX. mendearen erdialdera arte, gauza arrunta izan da egur-ikatzza egitea Nafarroako ibar kantauriarretako oihanetan eta, beraz, baita Bertziko Jaurreirian ere.

Ibar hauetako aitona batzuek datu asko eman dituzte, orain ikusten dituzun maketak egin ahal izateko. Batzuetan oso hunkituta, ikatzza egiteko prozesu osoa kontatu dute, haien bizimodua eta ohiturak.

Bai maketetan, bai paneletan, kultura hori jasotzen saiatu gara.

Etorri! Polita irudijituko zaizu.




6

**2** Markategira etortzen ziren oihanean bazkatutako animaliak markatzera

Denbora luzean, oihanetan egin den lanik ohikoena abeltzaintza estentsiboa izan da. Herriaren mendi eta ibarbasoetan hazten ziren abelburuak, behar-beharrezkoak baitziren elikatzeko edo laborantzarako.

Bertziko Jaurreirian, finka partikularra baitzen, kuota bat ordaintzea eskatzen zitzairen inguruko baserritarrei, aziendak finkaren barranean bazkatze aldera.



7

XIX. mendean eta XX. mendearen lehen erdian, noiznahi ikusten ziren zerriak eta ardi latxak oihan hauetan, libre, bazkatzen. Baina, aurrera, "markatu" behar izaten zen, finka barranean kontrolatuak egon zitezen. Markatze lan hori erorita ikusten duzun borda honetan, markategian, egiten zen.

Kontuz hurbildu eta, haiek egiten zuten bezala, markatzen saiatu.

**3** Gaztainak kontu handiz gordetzen ziren, hobeki iraun zezaten

Gaztainondoak elikadurarako eta materialetako landatu izan dira, baina, gaur egun, oso hondatuta daude, "tintak" eta "bankroak" jota.


Bertzen bizirik dirauten aleak bideetatik hurbil daude, ospelan eta haritza eta pagoa elkartzen diren guneetan

Mendian bazkatzen ziren animaliek jaten zituzten zuhaitzetatik eroritako gaztain asko, baina beste batzuk bildu eta gorde egiten ziren.



**3** Gaztainak iraun zezaten

zen ziren, adar eta makilen zeberritua egon zedin. hezetasuna kentzeko. baten hondarrak dituzu



#### 4 Harizti Atlantiarra ondasun iturri da zenbait mendetatik hona

XVI. mendetik aitzina erabili da harizta itsasontzietan eta eraikuntzan. XVII. mendean, egurtako hasi zen erabiltzen, burdinolek behar zuten egur-ikatza egiteko; baina, baita bazkatak ere, abeltzaintza estentsiboan, zerri eta ardiarentzat, batez ere.

XX. mendean, beharakada handia izan du haritzaren aprobetxamendua Bertzen; azken jabeek (Pedro Ciga eta Dorotea Fernández) hala nahi zutelako, lehenik, eta Natur Parke deklaratu delako, gero.

eman zaio indarra, eta urteak iragan ahala, gero eta lur gehiago hartu du, oso azkar hazten baita.

Saia zaitetz bi espezie hauek bereizten: haritz arrunta – haritz amerikarra. Hona laguntzatxo bat.

Hostoek gain, azalak eta siluetak konparatzen ahal dituzu. Hurbildu ukitzeko, usaintzeko...



#### 5 Gaztainondo urtetsuak zure zain

Gaztainondoei buruz, zerbait ikusi baduzu ere, ezin duzu aurrera egin arbola eder izandakoen hondarrei erreparatzeko gelditu gabe.

#### 6 Pagadiak bere ondasunak ematen ditu

Alderdi honetan, pagadiak dira oihan gehienak. Pagoa da oihan mota hau osatzen duen ia zuhaitz espezie bakarra. Itzal handia ematen du, hainbeste hosto ditu oihanperik.

Enbor lerdena du eta azala grisa edo zurixka. Egurrak berotasun handia ematen du; horregatik, ona da erregai gisa eta egur-ikatza egiteko. Altzariak eta etxeko tresna asko egiteko ere erabiltzen da.



Ez da zaila pagoak ezagutzera.

Pago ezkurra, pagatxa, elikagaia izan da zerrirentzat eta etxeko hegaztientzat. Bestalde, jakietan erabil daitekeen olio ematen du, argitzeko ere baliatu dena. Espezie kopurua oso txikia izanda ere, pagadiaren oihanpea oso interesgarria da. Ahabiak, iratzeak, ainarrak eta gorostiak hazten dira pagadian.

#### 7 Ahabiak, mahaiaren gozagarri

Landare txiki hori 35 cm luze izatera iristen da, eta bihi beltz gisa bereizten da bere fruituak. Agian, jakinen duzu zein gozoak diren haiekien egiten diren marmeladak eta postreak.



#### 8 Ainarrak itzala ere ematen du

Pagadiaren oihanpean ere, hainbeste irakurketa ezia ematen dute. Agian, inoiz dastatu duzu eta haren zaporeaz oroitzen zara.



Ainar artean, erlauntzak jartzen dira, eta tira handiko ezia ematen dute. Agian, inoiz dastatu duzu eta haren zaporeaz oroitzen zara.

9

10

11


12

#### 9 Gorostiak bizirik dirau

Arras behera egin du gorostiak pagadietan, hainbeste erabilera ditu eta zuhaikak horren zurak, eta hainbeste erabili baita apainsari gisa. Bere fruitua, nesuan umotzen den bihi gorri bat, hegazti askoren elikagai bakarretako bat da urte sasoi horretan.

Horregatik, bere kontserbazioa segurtatzeko, gorostia "espezie babestu" deklaratu zen.

Zuk ere lagundu dezakezu "hosto arantzatsu" horiek babesten.



#### 10 Gero eta jende gehiagok erabiltzen du oihana bere denbora librean

Azken urteotan, gora egin du aire librean egoteko oihanera etortzen den jende kopurua. Seguru aski, zu ere beste bat gehiago zara.



Eguneroko gauza da jendea oinez, bizikletaz edo zaldi gainean ikustea kirol egiten, baita urean edo hodeietatik hurbil ere.

Bertzen kasuan, aspalditik heldu da oihanaren erabilera turistikoa; izan ere, azken jabeek natura aztertzeko moldatu zuten oihana, eta gozatzeko. Hori bai, deus hondatu gabe.



Hori litzateke hoberena, ezta? Denok aukera izatea naturaz gozatzeko (edozein tokitan garena), haren egoera deusean ere arriskuan jarri gabe.

Hasi, bada!

#### 11 Oihanaren soiluneetan etxeak daude, han hemenka: baserriak.

Etxeak egitea, erretzeko edo artzaingarako lurak ateratzea, ohiko gauza izan da mendi hauetan, eta horretan oihanaren puska bat galdu da.

Aise ohartuko zara baserria lurri lotua dagoela, hura egiteko erabilitako materialei erreparaturata (harría eta zura).


Etxea, lurra eta aziendak hartzen dituen unitate ekonomikoa (minifundioa) izan da baserria, eta hala izaten darrai, iraganean baino garrantzi gutxiago badu ere.

Baserriekin batean baratzeak ikusiko dituzu, autokontsumorako, eta frutarbolak. Bestalde, belaietan, aziendak libre alhatzen dira udan.

Horrela ageri zaigu nekazari eta abeltzairien tradiziozko bizimodua.



#### 12 Ibilbidea bukatu da, baina segi dezakezu Parkean barrena.



1. Naturaren Interpretazio Zentroa (NIZ)
2. "Kotxetegia" erabilera aretoa
3. Jauregia: erakusketa aretoa
4. Egurtegia
5. "Zabala Etxea" Natura Interpretazio Zentroa
6. Ikerketegia
7. Gisu-labea
8. Askaldegia
9. Landak
10. Turismo bulegoa.

13

14

15

MILA ESKER ARRETAGATIK!